

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Herediako UE-15 urbanizazio proiektuaren behin betiko onarpena

Alkate-Udalburuak, 2026ko abuztuaren 4ko 432 erabakiaren bidez, honako hau onartu zuen:

Lehenengoa. Behin-betiko onartzea Heredia herriko UE-15 egikaritze-unitatearen urbanizazio-proiektua, A. F. de L. R. de A. jaunak sustatua eta Javier Crespo Ruiz de Gauna arkitektoak idatzia, baldintza hauen arabera:

a) Obra hasi aurretik urbanizazioaren zuinketa-akta formalizatu beharko da dagokion udal-teknikariarekin.

b) Energia elektrikoaren eta telekomunikazioen sareak zerbitzua hornitzen duten enpresen jarraibideen arabera gauzatuko dira.

c) Jarri beharreko argiteria publikoko argi berriek Herediako hirigunean daudenen ezaugarri berak izan beharko dituzte.

d) Hiri-instalazioak abian jarriko dira, sare orokorretara lotuak eta enpresa hornitzaile bakoitzaren araudia beteta. Kontagailuak erregistratzeko moduko armairuetan ezarri beharko dira, lursailaren itxuran sartuta, eta eskura egongo dira irakurtzeko eta egiaztatzeko. Ur-kontagailuak herrian indarrean den ordenantza beteko du, eta ez du emango zerbitzurik etxebizitzarako baimena eskuratu arte; horrez gain, lotzeko eskubiderako ezarritako tasa ordaindu beharko da.

e) Hesiak, garabiak, eraikuntza-materialak eta abar jarri behar badira, bide publikoan, dagokion baimena eskatu beharko du.

f) Obraren amaierako dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta, bertan, honako hauek jasoko dira: kaleen behin betiko egoera, azpiegitura-sareen trazadura eta horien elementuen kokapena (hustubideak, putzuak, erregistro-kutxatilak, argiteria publikoko argiak, hiri-altzariak, etab.). Obraren amaierako dokumentazio guztiaren euskarri digitala ere jaso beharko da.

Ozaetan, 2026ko abuztuaren 4an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA